

## SARRERA

Karmel aldizkariaren aurreko zenbakian idazle askok parte hartu dute, aldizkariaren zuzendaritzan zuzendariak 25 urte betetzen dituela-eta; zenbaki berezia izan da.

Eta zenbaki berri honetan zuzendariak berak eskaintzen du *Karmel* aldizkariaren historia luzeko bibliografia osoa (1931-2007).

*Karmel*-en bibliografia gehienbat zatika argitaratua izan da: *Karmengo Argia*-ko 1931-1936ko bibliografia (Karmel 1991-3, 12-38), *Karmel*-en 1957-1961ekoa (Karmel 1989-4, 29-52), 1970-1985ekoa (Karmel 1985-3, 27-55), 1985-1987koa (Karmel 1988-1, 23-30), eta 1995-2002koa (Karmel 2003-1, 36-59) Julen Urkizak argitaratu zituen; eta Anjel Loberak zenbaki berezi batean 1970-1994ko bibliografia atera zuen (*Karmel* 1994-4, 43-111). *Karmel* aldizkariaren zuzendariak orain bibliografia hau osatu du 2003-2007. urteko bibliografiarekin.

Beste behin aldizkariaren historia ere agertu zen, Lino Akesolo, Santi Onaindia eta Anjel Loberaren bidez (Karmel 1994-4, 6-42).

Orain eskaintzen den bibliografia osoa da eta era bitara: Idazlez idazle edo idazleen arabera, eta gaien arabera.

## **Idazleen arabera**

Ohiko erara jarria izan da zerrenda bibliografikoa, alfabetoaren arabera, eta izen bakoitzaren azpian ere idazlanen zerrenda alfabetoaren arabera doa. Hemen idazleen ekarpenak edo emaitzak jarraian agertzen dira...

## **Gaien arabera**

Lehenengo eta behin, gaien arabera doan bibliografia era errazean eta sinplean egin dugu: ideien, pertsonen, herrien, erakundeen, etabarren sarrerak jartzen ditugu, denak alfabetoaren arabera... Eta gero horretaz aldizkarian dauden idazlanen zerrenda.

Aldizkariak, *Karmengo Argia* edo *Karmel...* izenarekin historia luzea egin du (1931-2008), eta aldizkaria bera era desberdinetan agertua izan da, bai kalitatez eta bai kantitatez edo orrialdez, bai estiloz eta bai gaien erabileraz, garai eta belau-naldi desberdinetan... Hortik ikusten dugu, gaur bibliografia osoa egiten dugunean, idazlanen baliotasuna ez dala berdina, alderantziz baino...

Gaien atal honetan bertso eta olerkiak gutxiago kontuan hartu dira..., atal hau gehiegi ez luzatzearren.